

# URTEKO BIZIKIDETZA PLANA

# ESKOLA- BITARTEKARITZA PROIEKTUA

DOLORES IBARRURI BHI  
014010  
ABANTO-ZIERBENA



## AURKIBIDEA

### Orrialdea

1. AURKEZPENA .....	1
2. HELBURUAK .....	1
3. BITARTEKARITZA PROIEKTUAREN DENBORALIZAZIOA .....	1
4. BITARTEKARITZA PROIEKTUAREN EBALUAZIOA .....	1
5. BITARTEKARITZA: ZER DA? .....	2
6. BITARTEKARITZA DOLORES IBARRURI BHIN .....	3
7. BITARTEKARITZA TALDEA ETA ELKARBIZITZA .....	3
8. BITARTEKARITZA ZERBITZUAREN PROTOKOLOA .....	4
9.- ERANSKINAK .....	4
1. ERANSKINA. Bitartekaritza eskatzeko inprimakia	
2. ERANSKINA. Bitartekaritza prozesuaren faseak	
3. ERANSKINA. Aurre-bitartekaritzarako gidoia	
4. ERANSKINA. Bitartekaritza saiorako gidoi orokorra (bitartekariak)	
5. ERANSKINA. Bitartekaritza saiorako gidoi laburtua (bitartekariak)	
6. ERANSKINA. Bitartekaritza prozesuaren erregistroa (bitartekariak)	
7. ERANSKINA. Bitartekaritzaren akordioaren erregistroa (bitartekariak)	



## HISTORIKOA:

Proposamenaren aurkezpena .....	2011-05-18
Klaustroaren onarpena.....	2011-06-30
OOGren onarpena .....	2011-06-30
01. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena .....	XXXX-XX-XX
OOGren onarpena .....	XXXX-XX-XX

## 1. AURKEZPENA

Azken 15 urtetan Dolores Ibarruri BHI n elkarbizitzarekin zerikusirik dituzten gaiak landu ditugu irakasleen zein ikasleen formakuntza-proiektuen bidez. Geroago berrikuntza proiektuen bidez praktikan jarri genuen ikasitakoa. Hasiera batean elkarbizitza araudia landu genuen, ondoren estamentu guztien arteko elkarbizitza hobetzeko proposamenak, ingurugiro eta espazioen zaintza eta ikasle berrien harrera.

Prozesu guzti hau burutzean ikasleak elkarbizitza hobetzeko planteamenduan sartzeko beharra ikusi genuen eta ikasle laguntzaileen taldea osatu genuen. Orain dela sei urte martxan jarri zen talde hau. Gelako dinamika hobetzeko, ikasleen harrera egiteko eta haien arteko elkarbizitza hobetzeko formazio saioak antolatzen dira ikasle talde honentzat.

Aldi berean, elkarbizitza plana eta harrera plana egiteari ekin genien.

Institutuaren egoera aztertu eta ebaluatu ondoren bitartekaritza proiektu baten inguruan irakasle zein ikasleak lan egitea komenigarria izango litzateke uste izan dugu, ikastetxe parte-hartzailea eta gizarteari zabalik lortzeko.

## 2. HELBURUAK

1. Biolentzia aurreikusi eta hezkuntza komunitatean ager daitezke kideen arteko gatazkak kudeatu.
2. Gatazkak konpontzeko estrategiak ikasi.
3. Kideen arteko harremanak berrezarri.
4. Erabakiak hartzeko komunikazio, gogoeta eta autokontrolarako gaitasunak garatu.
5. Gela eta institutuaren klima ona izaten lagundu.

## 3. BITARTEKARITZA PROIEKTUAREN DENBORALIZAZIOA

1. **aldia:** Bitartekaritza aurrera eramateko protokoloa osatu eta ikasle, irakasle eta guraso talde bat bitartekaritza taldekideak izateko. 2011. urteko urtarrila eta otsailean.
2. **aldia:** Bitartekaritza proiektua ikastetxean agertu: Tutorei, departamentuei, klaustroari eta OOGri aurkeztu proiektua eta taldea.  
Klaustroaren eta OOGren proiektuaren onarpena.  
2011. urteko martxoa eta apirilean.
3. **aldia:** Ikasleen artean proiektua ezagutarazi.  
Martxan jarri bitartekaritza adostutako protokoloa erabiliz.  
2011. urteko maiatza eta ekainean.

## 4. BITARTEKARITZA PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Ebaluaketa egiteko proiektu honetako aldi bakoitzean ezarritako ekintzetan oinarrituko gara.

Ebaluaketa adierazleak ondoko hauek izango dira:

### 1. ALDIA

- Bitartekaritza protokoloa eta beharrezkoak diren dokumentuak osatu dira?
- Bitartekaritza taldea osatu da?
- Bitartekarien ( ikasle, irakasle,...) formazio teoriko eta praktikoa aurrera eraman da?

### 2. ALDIA

- Bitartekaritza azaltzeko Triptikoa egin eta banatu da?
- Bitartekaritza proiektua klaustro eta OOG bileretan onartu egin da?

### 3. ALDIA

- Bitartekaritza proiektua ikasleen artean azaldu da?
- Martxan jarri da zerbitzu hau?
- Kurtso bukaeran egin da memoria bat zenbat gatazka, zein motatakoak izan diren, balorazioa eta bitartekariaren proposamenak jasotzen?

### 5.- BITARTEKARITZA: ZER DA?

Bitartekaritza arazoak aurreikusi eta konpontzeko bide egokia da bi alderdiren arteko gatazka batean hirugarren bat pertsona neutral bat (bitartekaria) sartzen da. Bitartekaritzaren bidez bi alderdiek irabazten dute, elkar ulertzeko, haien artean komunikatzeko eta akordio justuetara ailegatzeko esfortzu handia egiten dute. Bitartekariak laguntzen du prozesu hau burutzen.

Bitartekaritza:

- Berezko balio hezitzailea du, arazoak konpontzeko bide desberdin bat dagoela irakasten du.
- Ikasleak bestearen arazoak entzuten ikasten du.
- Bitartekaritza pertsonaren alde positiboa indartzen da.
- Pertsonaren autonomia sustatzen du.
- Norberaren ezagutza eta emozioen kontrola laguntzen ditu.
- Tolerantzia eta errespetuaren hezten du.
- Ikaslea bizikidetzan inplikatzeko du.
- Institutuan kultura parte-hartzaile eta irekia garatzen du.
- Gatazka era konstruktiboan ulertzen da.

5.1. Bitartekaritzaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Boluntarioa.
- Isilpekoa.

5.2. Noiz egin bitartekaritza?

Hauetariko baldintza bat suertatzen denean:

- Zigorak elkarbizitza hobetuko ez zuenean.
- Inplikatuaren arteko harremana bideratu behar denean.
- Inplikatuak eskatzen dutenean.
- Biktimarentzat tratatu txarren arriskurik edo desabantailarik ez dagoenean.
- Bandalismoa, lapurreta,... gertatu ez denean.

5.3. Bitartekariaren jarrerak eta trebetasunak zeintzuk dira?

Bitartekariak zera egin behar du:

- Ez epaitzea.
- Neutral agertzea.
- Enpatikoa izatea.
- Era aktiboan entzutea.
- Alderdien ikuspuntutik akordioa onartzea.
- Akordioaren jarraipena egitea.

5.4. Gatazka batean dauden alderdiek, derrigorrez:

- Elkarlanean aritu behar direla gatazka konpontzeko onartzea.

- Bitartekaria onartzea.
- Ni-mezuak erabiltzea.
- Bestearen lekuan jartzea (bestearen beharrak eta sentimenduak ulertzea).
- Gatazkaren erantzukizuna adieraztea.
- Irtenbidea bilatzen parte hartzea.
- Bientzat ona den akordioa onartzea (biek zerbaiti uko egiten).

#### 5.5. Nola eskatzen da bitartekaritza?

- Alderdi batek edo biek eskatu ahal du (dute) idazkaritzan dagoen inprimakia betetzen eta ikasketa burutzan zein idazkaritzan ematen.
- Hirugarren batek (ikasle, irakasle, familia,...) bitartekaritzaren bidez konpondu ahal den gatazka ikusten du eta jakinarazten du.

### 6. BITARTEKARITZA DOLORES IBARRURI BHIN

Dolores Ibarruri BHIko hezkuntza komunitateak bere kideen arteko bizikidetzan hobetzeko asmoz bitartekaria eta bitartekaritza taldea sortzea erabakitzen du eta Elkarbizitza Planaren barruan sartzen da.

### 7. BITARTEKARITZA TALDEA ETA ELKARBIZITZA

#### 7.1. Partaideak

Orientatzailea, ikasketa buru ordea, elkarbizitza koordinatzailea, irakasle bat edo bi eta ikasle bitartekariak.

Hezkuntza komunitateko edozein kide bitartekaria izan daiteke, batez ere, formazio berezia izan duten ikasle laguntzaileak. Bitartekari izateko formazioa izan duten irakasle eta gurasoak ere izan daitezke.

#### 7.2. Bitartekaritza taldearen funtzioak

- a) Bitartekaritza prozesuak aurrera eraman eta erregistratu.
- b) Kasuak aztertu eta bitartekariei esleitu.
- c) Bitartekaritza protokoloa ezarri.
- d) Bitartekaritza zerbitzuaren propaganda egin:
  - Tutore eta ikasleentzako triptikoa.
  - Ikastetxeko hainbat lekutan jartzeko kartelak.
  - Bitartekaritza taldearen familia guztiei bidaltzeko gutunak.
- e) Ikasturteko hasierako tutoretza saioetan bitartekaritzaren informazioa.
- f) Bitartekaritza eskatzeko inprimakia eta idazkaritzan uztea.
- g) Ikasle laguntzaile bitartekariak bikoteka ikasle berrien tutoretza saio batean parte hartzea.
- h) Bitartekaritza taldea sustatu eta formakuntza saio gehiago eskaintzea.
- i) Bitartekaritza zerbitzua ikastetxeko zenbait dokumentuetan agertzen bultzatzea.
- j) Elkarbizitza plan barruan proposamenak egitea gatazka ez agertzeko.
- k) Bitartekaritza zerbitzuaren ebaluaketa egitea:
  - Erabiltzaileen inkesta.
  - Gatazka motak eta akordioen jarraipena.
  - Bitartekarien balorazioa eta proposamenak.

### 7.3. Koordinazioa

- a) Hilero bitartekaritza taldearen bilera.
- b) Zuzendaritza, ikasketa buruordea, orientatzailea, elkarbizitza koordinatzaile eta ikasle bitartekarien ordezkoekin bilera egutegia finkatu.

## 8. BITARTEKARITZA ZERBITZUAREN PROTOKOLOA

### 1. Eskaerak:

- Alderdi batek edo biek eskatu ahal du (dute) Idazkaritzan dagoen inprimakia betetzen eta ikasketa burutzan zein idazkaritzan ematen.
- Irakasle batek bitartekaritzaren bidez konpondu ahal den gatazka ikusten du eta orientatzailea, ikasketa burua edo elkarbizitza koordinatzaileari jakinarazten dio (die).
- Ikasle bitartekarien bitartez ezagutzen du gatazka zuzendaritzak edo orientatzaileak.
- Ikasketa burutzak bitartekari taldeari hainbat gatazka bideratu ahal dizkio.

2. Elkarbizitza koordinatzaileak beharrezkoak diren aurre-bitartekaritza saiok egiteko eta bitartekariak proposatzeko denbora izango du (Aurre-bitartekaritza, 3. ERANSKINA).

3. Bitartekaria proposatzeko kontuan hartuko da:

- Ikasleen arteko gatazka bada haiekin ahalik eta harreman gutxien duen irakasle edota ikasleak aukeratuko dira.
- Edozein bitartekarik kasu batean parte hartzeari uko egin ahal dio.
- Inplikatuak aukeratutako bitartekariei uko egin ahal diete.

4. Eskaera eta bitartekaritza prozesuaren artean ahalik eta denbora gutxien egongo da.

5. Zuzendaritzak, ikasketa burutzak eta irakasleek bitartekarien lana erraztuko dute eskola ordutegian bere lana egin dezaten.

6. Bitartekaritza prozesuak pauso jakin batzuk ditu (2. ERANSKINA) eta gidoi orokorra edo gida azkarra jarraituko du (4. eta 5. ERANSKINAK).

7. Bitartekaritza prozesuan, bitartekariak (bitartekariak) bitartekaritza prozesuaren erregistroa beteko du (dute) (6. ERANSKINA).

8. Bitartekaritza prozesuaren amaieran bitartekariak (bitartekariak) adostutako akordioak jasoko dituzte eta inplikatuak eta bitartekariak sinatuko dute (7. ERANSKINA). Akordioaren berri emango zaio tutoreari horren jarraipena egiteko.

## 6. ERANSKINAK